

**D. PEDRO CALDERON DE LA BARCA-REN ONOREAN.****KANTACHOA.****I.**

Zure sorterri ama Espaňak  
gaur dizu egiten deiya,  
eskeñi nairik ostoz moldatu  
zaitzun koroi bat berriya;  
kopeta noble ori sointzeko  
orduba da eta iya,  
daukazun loa lajata jaiki  
zaitez Don Pedro aundiya.

**II.**

Nekez oroitu baikerade, bi  
giza aldiren buruban,  
zeren au egin bear zitzazun  
lotara ziñan orduban;  
bañan barkatu, gu nola sasoi  
artan ez giñan munduban,  
orduko partez orain ezarri  
nai degu zure buruban.

**III.**

Gukuntz ostoz ta erramuz degun  
gisan moldatu zuretzat,  
zuk diamantez zenuben egin  
España osoarentzat;  
bada geroztik dauka alchea  
onore garri beretzat,  
dizdiratubaz desitzatzitzen<sup>1</sup>  
zaizkala perlak guretzat.

**IV.**

Ziñan abade doaiz soindu bat,  
dramalle bardin gabea,  
zeñakin pistu zenuben gure  
Jauna ganako pedea;  
oraindik ere zera gauza chit  
baliosoen jabea,  
zartuak gatik ez dute jotzen  
zure lan aundiak bea.

**V.**

Zu zera utzi zizkguzuna  
irazekiyak argiyak,  
azal zitezen urrutitako  
bollargi jirak<sup>2</sup> garbiyak;  
ase eziñik gozoso egon  
oi dira gure begiyak,  
ikusten beren aurreanz utik  
para ziñuzen egiyak.

**VI.**

¿Non dira zure memoriya ta  
pluma doaizko zurea,  
argitaratu zutenak zala  
amets bat bizi gurea?  
¡Zer andigaiya izan zan para  
zenuben argibidea,  
lan oroitgarri ura entzutez  
ez ta aspertzen jendea.

**VII.**

¡Zer esango da ere biltoki<sup>3</sup>  
audi mundukoagatik?  
Zeñetan egin ziñuzen milla  
pintura eder gugatik?  
Ikusten gera aberats, pobre,  
zar, gazte, eder, itsusik,  
zer moduz jaio bizi eta joan  
oi geran mundutik guzik.

**VIII.**

Eta ¿zer dira sakramentuba  
gaindutzen duten autoak?  
¡O zein barrendik artubakdauden!  
¡Zer pensamentu jasoak  
beretan diran argitaratzen  
gauza misteriosoak,  
gizontasuna<sup>4</sup> indarturikan  
daukaten prutu gozoak.

(1) Desprender.

(2) Los horizontes.

(3) Teatro.

(4) La humanidad.

## IX.

Zure biurtzak<sup>1</sup> azaltzen dute nola dan Eukaristiya, zer modutan dan ogi egiten Cristo-ren gorputz eztia; au da abade baten itzakin Jaun biurtutzen ostiya, Bere graziyan indartu dezan artutzen duben guztiya.

## X.

Aiñ andigaiak badira oek gañerakoak ¿zer dira? ¡O antz baleko chit mirariyak kutuntzat gordetzen dira; denak urrezko egakin ziyen eman mundubari jira, arriturikan utzirik jende dena berari begira.

## XI.

Zeiñ biltokiko jazkerarekin, zein eleizako janziyan, zure plumatik atera ziran izkribu denak graziyan; ala Europan non Amerikan, Aprikan eta Asiyam, zure izena errespetatzen dute gaur mundu guziyan.

## XII.

Mundu osoan irukirikan gloriya irabaziya, zu ill zñala esaten ari da beti jende guziya; bada ikasi bezate denak ez dala ori egiya, Don Pedro-rikan etzan ill, dago lotan oraindik biziya.

## XIII.

Au bere lanak esaten dute erabatkari justubak, onore jaikitakoz egille berena aberastubak; ain berarekin egongo dira biotz denetan piztubak, non ez diran bein mundubak di- [raun arte izango aztubak.

## XIV.

Ama España maiteak zenubelako merezi, oroikagarri<sup>2</sup> berri eder bat egiten zitzaitzun asi; gaur da. bukatu eta nor ziñan dezaten denak ikasi, bere gañean nai zaitu para zaitezen beti an bizi.

## XV.

Zu goititzera dira beraren beste semeak etorri, eta gu ere bai euskaldunak bidean korri ta korri; bidez ditugu usai gozozko lore gerenak ekarri, nai ditugula onorezteko zure oñetan ezarri.

## XVI.

Lor-ontzi moch au ez dator emen daudenak bezin betea, alas guziyaz euskal-erriko loren onora zaitea; ez ditekena da guchi izan eta asko ematea, eskeñiya da chikiya, bañan audiya borondatea.

## XVII.

Zure oroitzik mundurik mundu iñoi ez dediyen borra, mollarik goien goienengora alchatu zaitugu, orra; au egin arte zekarren gure biotzak karga gogorra, gaur dizu zere ama Españak pagatu zenizun zorra.

## XVIII.

Begira jarri bitez onuntza ingurutako erriyak, eta segiran asi alchatzen onelako lan berriyak; bear bezela ez diralako sarizten<sup>3</sup> gizon audiak, lotan gelditzen dira esnatu bear luteken erdiyak.

(1) Poemas.

(2) Monumento.

(3) Premiar.

## XIX.

Jira gaitean gu euskaldunak  
orain geren lur maitera,  
non arkituko degun lan modu  
oek antzeztekot<sup>1</sup> era,  
guk ere geren aita onaren  
seme leialak bagera,  
bear ditugu illunpetatik  
argira berak atera.

## XX.

Ara non dagon, ara Don Pedro  
ustez illtzana biziya,  
oroikagarri berri batean  
soin onorezkoz janziya;  
viva lan on au egindutenak,  
viva España guziya,  
Jaunak banatu dezala denen  
gañean bere graziya.

RAMON ARTOLA.

## FRAGMENTOS Y VERSIONES DE CALDERON.

## MONÓLOGO DE SIGISMUNDO EN SU PRISIÓN.

¡Ay mísero de mi! ¡Ay infelice!

Apurar, cielos, pretendo,  
Ya que me tratas así,  
Qué delito cometí  
Contra vosotros naciendo;  
Aunque si nací, ya entiendo  
Qué delito he cometido:  
Bastante causa ha tenido  
Vuestra justicia y rigor,  
Pues el delito mayor  
Del hombre es haber nacido.

Solo quisiera saber,  
Para apurar mis desvelos,  
Dejando á una parte, cielos,  
El delito del nacer,

## SIGISMUNDO-REN ITZALDI-BERAGANGOA PRESONDEGIAN.

¡Ay ni beartsu! ¡Ay doacabe!

Jakin nai nuke, zerubac,  
Ni onela ecusiric,  
Zertan gaizki egiñ dedan,  
Zuen contra jayorik;  
Alabañan, jayo-ezkerro,  
Agiri-zait bertatic,  
Arrazoya dezutela  
Nere contra jaikiric;  
¿Zer gizonai gaitz-geiago  
Jayo-izana alacoric? <sup>2</sup>

Bacarrik jakin nai nuke,  
Kentzeco buraustea,  
Alde-batera, ó zerubac,  
Utziric jayotzea,

(1) imitar.

(2) Los zorzicos y amarrechos ó décimas euskarras con versos de OCHO Y SIETE silabas, como estos son mas usuales en los dialectos de Navarra y Francia que en los de Guipúzcoa y Bizcaya, donde son mas comunes con los versos de SIETE Y SEIS silabas, como en «Gernicacoarbola», en «Eperrac cantetan dau», etc., etc.